**EAE-ko Hezkuntza zentruetako ikasturte hasiera langileen ordezkariokin negoziatzeko asmo ezarekin kezkatuta, sindikatuok bilera batera deitu dugu Hezkuntza saila**

Pandemia egoeran ikasturte amaiera honi begira Hezkuntza Saila egiten ari den kudeaketa oso larria eta arduragabea izaten ari da.

Modu inprobisatuan bapateko, planifikatu gabeko eta langile zein ikasleen osasuna bermatzeko egokiak ez diren aldebakarreko erabakiak hartzen ari da behin eta berriro.

Egoera larria honen aurrean, ikasturte amaierari begira segurtasun eta osasun bermeen betetzea eskatu dugu behin eta berriro sindikatuok. Aldi berean, datorren ikasturtera begira, ikasturte hasierarako plangintza, hasiera baldintzak, osasuna bermatzeko hartu beharreko segurtasun neurriak, beharrezko plantila handitzeak, etab., langileon ordezkariokin partekatu eta adostuak izan daitezela ere galdegin diogu.

Gaur gaurkoz ordea, Hezkuntza Sailak ez die gure eskaerei erantzun eta datorren ikasturte hasierako baldintzak zein itzulera plan orokorra gurekin negoziatu eta adosteko bilera deialdirik ere ez dugu oraindik jaso.

Honi gehitzen zaio datorren ikasturteari begira hezkuntza sailak komunikabideen bidez zabaldu duen “ohiko ikasturte hasiera” egiteko asmoa. Adierazpen hauen atzean orain arteko jokaera arduragabe eta kezkagarri berdina ikusten dugu. Egin beharko litzatekena osasuna bermatuko duten neurri eraginkorrak hartuz aurrez aurreko ikasketak berreskuratzen joateko plangintza bat landu eta plangintza hori aurrera eramateko beharrezko segurtasun neurri, baliabide, ratio murrizketa zein plantila gehikuntzak aurreikustea litzake. Hori egin beharrean aldiz, osasuna bermatzeko irizpideak, irizpide pegagogikoak zein hezkuntza sistemak dituen beharrak aintzat hartu gabe, gastu gehikuntza ekidite soilera bideratutako planteamenduak egitea izan da. Honek agerian uzten du Jaurlaritzak Hezkuntzari ematen dion balio murritza eta gure Hezkuntza sistema indartzeko eta bertan inbertitzeko asmo eskasa.

Egoera honen aurrean, eta gauden datak kontuan edukita Sindikatuok gaur bertan Hezkuntza Sailari Itzulera planari buruz hitz egiteko bilera deialdia helarazi diogu. Deialdia datorren asteazkenerako egin dugu (goizeko 11.30etan Lakuan), sindikatuotako ordezkariak han izango garelarik.

Hezkuntza Sailari exijitzen diogu arduraz joka dezala, sindikatuokin langileen kolektiboz-kolektibo ikasturte hasierarako plana, segurtasun neurriak, baldintzak zein neurri horiek bermatzeko beharrezko baliabideak partekatu, negoziatu eta adostu ditzala. Bide batez, gure hezkuntza sistema indartuko duten erabakiak har ditzala.

Euskal Herrian 2020ko ekainak 4an

**Preocupados por la falta de voluntad de negociar con la representación de los trabajadores y trabajadoras el inicio de curso en los centros educativos de la CAV, los sindicatos convocamos a Educación a una reunión**

En esta situación de pandemia, la gestión del Departamento de Educación de cara a este fin de curso está siendo muy grave e irresponsable.

De forma improvisada está tomando decisiones espontáneas, unilaterales y sin planificar, decisiones que no son adecuadas para garantizar la salud de los y las trabajadoras y tampoco las del alumnado.

Ante esta grave situación, los sindicatos hemos reclamado de forma reiterada el cumplimiento de las garantías de seguridad y salud de cara al final del curso escolar. Al mismo tiempo, de cara al próximo curso, hemos exigido que la planificación de comienzo de curso, las condiciones de inicio, las medidas de seguridad necesarias para garantizar la salud, los incrementos de plantilla necesarios, etc., sean compartidos y consensuados con la representación de estos trabajadores y trabajadoras.

Sin embargo, a día de hoy, el Departamento de Educación no ha respondido a nuestras peticiones y no hemos recibido aún ninguna convocatoria de reunión para negociar y acordar con nosotros el plan general para la vuelta ni las condiciones de comienzo del próximo curso.

A ello se añade la intención del Departamento de Educación de realizar de cara al próximo curso un "inicio de curso orrdinario" , intención que ha difundido a través de los medios de comunicación. Tras estas declaraciones vemos el mismo comportamiento irresponsable e inquietante que hasta ahora. En lugar de elaborar una planificación para ir recuperando los estudios presenciales mediante la adopción de medidas eficaces que garanticen la salud y prever las medidas de seguridad, recursos, reducciones de ratios o incrementos de plantilla necesarias para llevar a cabo dicha planificación, se estás realizando planteamientos dirigidos exclusivamente a evitar el incremento de gasto y por tanto, sin tener en cuenta los criterios de garantía de la salud, los criterios pegagógicos o las necesidades del sistema educativo. Esto pone de manifiesto el escaso valor que el Gobierno otorga a la Educación y la escasa voluntad de potenciar e invertir en nuestro sistema educativo.

Ante esta situación, y teniendo en cuenta las fechas en las que nos encontramos, los sindicatos hemos trasladado hoy mismo al Departamento de Educación la convocatoria de una reunión para hablar sobre el plan de retorno a las aulas. La convocatoria es para el próximo miércoles (a las 11.30 horas en Lakua), y los sindicatos estaremos allí presentes.

Los sindicatos exigimos al Departamento de Educación que actúe con responsabilidad y comparta, negocie y acuerde con los sindicatos, el plan de inicio de curso colectivo por colectivo, las medidas de seguridad, las condiciones y los recursos necesarios para garantizar dichas medidas. De la misma manera, exigimos que tome decisiones de cara a reforzar nuestro sistema educativo.

En Euskal Herria a 4 de junio de 2020

ELA EUSKAL SINDIKATUA · LAB >irakaskuntza · steilas · CCOO irakaskuntza · UGT FeSP Zerbitzu Publikoak Euskadi